



Urretxuko argiztatze publikoaren ingurumen eta energia-ikuskaritza



Indizea



- 1- SARRERA**
 - 1.1 Energia kontsumoa argiztapen publikoan
 - 1.2 Urretxuko kanpoko argiztapen publikorako politika eraginkorraren beharra
 - 1.3 Ikuskaritzaren faseak
 - 1.2 Energia-Zerbitzuen Enpresak. EZE-ak
 - 1.3 Kanpoko argiztapen publikoaren energia-ikuskaritza egiterakoan kontuan izandako arauak
- 2- ARGIZTAPEN INSTALAZIOEN GAUR EGUNGO EGOERA**
 - 2.1 Kale-argia/luminaria
 - 2.2 Argi iturriak
 - 2.3 Ekipo osagarriak
 - 2.4 Argizatze-koadroak: Kudeaketa eta gestio sistemak
 - 2.5 Argi-mailak gutxitzea
 - 2.6 Mantentze lanak
 - 2.7 Argiztapen mailak
 - 2.7.1 Bideen sailkapena eta argiztapen moten aukeraketa
 - 2.7.2 Kanpoko neurketetan lortutako emaitzen araberako argiztapen mailen konparaketa
- 3- URRETXUKO GAUEKO ARGI DISDIREN ANALISIA**
- 4- IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEAK**
 - 4.1 Zergatik ez da eraginkorra Urretxuko argiztapen publikoa?
- 5- URRETXUKO ARGIZTATZE KOADRO BAKOITZEKO RATIOEN EBALUAKETA**
- 6- ELEKTRIZITATE HORNIDUAREN KONTRATAZIOA**
- 7- URRETXUKO BALANTZE ENERGETIKOA**
- 8- URRETXUKO BALANTZE EKONOMIKOA**
- 9- HOBETZEKO PROPOSAMENAK**
- 10- ARGIZTATZE INSTALAZIOEN EDO ELEKTRIZITATE HORNIDUREN ENERGIA KALKULOA**
- 11- UDALAREN GAUR EGUNGO EGOERA CONSULTORIA LUMINICAREN RATIOEKIN ALDERATUTA**
- 12- LABURPENA**

Urretxu

1. Sarrera:

Gaur egun, gure herriak energiari dagokionez hainbat arazo ditu: kanpoko menpekotasun energetiko handia, erregai fosilen kontsumoaren nagusitasuna, berotegi-efektuko gas emisio maila altuak, produktu energetikoen prezio altuak, tarifa mentsa, etab.

Ingurumena hobetzen laguntzeagatik eta enpresen eta administrazio publikoen lehiakortasuna sendotu eta hobetzeagatik (beren funtzionamendu eta egikera prezioak murrizten dituztelako) eraginkortasuna gure menpekotasun energetikoa murrizteko baliabide honenatarikoa eta merkeena bilakatu da.

Eraginkortasun energetikoaren beste abantaila bat, berau gauzatzea azken hartzailearen menpe baino ez dagoela da, eta ez ordainsari edo arau berriak argitaratzearen menpe.

Bezeroek aurrezpen neurriak antzematea (bai teknikoak, zein kudeaketari dagozkienak. Badira honetarako laguntzak), gauzatzea eta emaitzen jarraipena egitea besterik ez dute. Epe luze, zein laburrean, nahi diren emaitzak lortzeko jarraipen onak berebiziko esangura du.

Energia-ikuskaritza aholkularitza zerbitzua da. Honen helburua, argiztapen instalazioen egoera aztertu, energia kontsumoa zenbateraino murriztu daitekeen finkatzea eta instalazioen eraginkortasun energetikoaren hobekuntza proposamenak zehaztea da.

Ikuskaritza honen bidez kanpoko argiztapenaren ikuspegi osotua lortu nahi da, horrela, energia eta diru aurrezpen garrantzitsua suposatzen duten proposamenak ahalik eta zorrotzen zehazteko.

Ikuskaritza energetikoari esker, balorazio ekonomiko zehatzenari jarraiki, informazio gehiarria eta hobekuntza proposamenak lortu dira. Informazio hau, argiztatze publikorako instalazioan aldaketak egin behar direnerako erabakiak hartzeko oso lagungarri izango da. Eskaintako zerbitzuaren kalitatea eta aurrezpen energetiko eta ekonomikoa kontuan harturik, mota honetako instalazioetan egiten diren inbertsioek dirua berrezkuratzeko tartea ahalik eta motzenak izan daitezkeen eta kontrol sistema egokiak erabiliz aurrezte urteak luzatzen saiatzen da.

Beti ere, 1890/2008 Errege Lege Dekretuko “Kanpoko Argiztatzerako Instalazioen Energeia Eraginkortasunaren Arautegiaren” baldintza teknikoak betez, energia eraginkortasuna lortzeko, beharra duten instalazioak modernizatzeko desioa dugu. Honetarako, ikuskaritzan bildutako neurri guztiak ekipamendu eta merkatuko teknologia eta ekipo egokienekin gauzatu dira.

Gaur egungo krisi egoera kontuan izanda, argiztatze publikoaren energia-ikuskaritzak ez du zentzunik “Energia-Zerbitzuen Enpresak / Empresa de Servicios Energéticos” “EZE/ESE”-ak barik. EZE-ak, bezeroen jabetza pribatuan, energia eraginkortasuna lortzeko edo energia zerbitzuak eskeintzeko, galerak izan ditzaketan arren, dirua inbertitzen duten pertsona edo figura juridikoak dira. EZE-ek emandako zerbitzuaren diru ordaina, ehin batean edo osorik, energia eraginkorragoa lortzeki eta hitzarturiko errendimendu baldintzetatik jasoko dute.

(2006ko apirilaren 5eko 2006/32/CE Europar Zuzentaraua).

1.1. Energia kontsumoa argiztapen publikoan

Kudeatzen eta mantentzen duten instalazio kopuru handia dela eta, (eskolak, ospitaleak, argiztapen publikoa, etab.) administrazio publikoa energia termiko eta elektrikoaren kontsumitzaile nagusienetakoa da.

Administrazio publikoan, 8.000 udalerrri baino gehiagoren argiztapen publikoaren mantentzea eta kudeaketa azpimarratzekoa da. Instalazio hauek herrialde osoan kontsumitutako energia elektrikoaren % 3 kontsumitzen dute.

Argiztapen gastu publikoari dagokionez, udalerrri batzuetan, udaleko energia kontsumoaren % 60 suposa dezake, aurrekontu partida garrantzitsuenetakoa izanik.

Gaur egungo krisialdi egoeran funtsezkoa da energia eraginkortasun proiektuen garapena (argiztapen-ikuskaritza publikoak eta ebatzirik neurrien ondorengo ezarketa) gastu energetikoa murrizteko eta mantenuaren gastuak gutxitzeko. Honen ondorioz, baliabide ekonomikoak beste beharrian batzuetan erabil daitezke. Ez da ahaztu behar helburuok lortzeko aurrezte hauen kontrola.

Argiztapen publikoaren eraginkortasun maila, ondorengo faktoreen kalitateak, egokitasunak eta funtzionamenduak zehaztuko dute:



Azken urteotan, aipaturiko esparruetarako, aurrezpen garrantzitsuak lortzeko sistema eta aplikazio berriak garatu dira. Moldaketok hauek dira:

- Ekoizpen handiagoko eta argi kutsadura gutxitzen dituzten kale-argi berriak.
- Ingurumena zaintzen duten lanpara berri erabilgarriagoak.
- Energia aktibo eta erreaktiboaren kontsumoa murrizten duten pizteko ekipu elektriko/elektronikoak.
- Instalazioen egoeren berehalako jarraipen eta kontrola, eta mantenu gastuen murrizketa bideratzen dituzten kontrol eta kudeaketa sistemak.


Honek guztiak, gutxienez, batz besteko % 30 eta % 40ko aurreztedun proiektuak lortzea dakar.



1.2 Urretxuko kanpoko argiztapen publikorako politika eraginkorraren beharra

Gure argiztapen publikorako politika berrian, lortu nahi dugun helburu nagusia hau da: behar dugun lekuan, beharrezko momentuetan eta argi kopuru egokiaz argitzea.

Argiztapen publikoa eraginkorra izan dadin ezinbesteko neurri multzo konplexua ezarri behar dugu.



Gure energia-ikuskaritzan, egoera ezberdin baten aurrean aurkitzen gara. Argiztapen publikoaren prozesu eraginkor eta iraunkorraren lehenengo 4 pausoak ez dira aurretiaz era egokian burutu. Horregatik, 5. pausotik aurrera bakarrik egin dezakegu lan, eta prozesua hasieratik bete izan bagenu baino neurri zuzentzaile gehiago hartzera garamatza.

Beraz, lan honen helburua, ingurumenari eta energiari dagozkionez, Urretxuko argiztapen publikoaren urritasunei zuzenketak egitea da identifikazioaren, kontrolaren eta planifikazioaren bidez. Aipatutako urritasuna arintzeko beharrezko neurri zuzentzaileak eta luzarora, hartutako neurriak betetzea bermatzen diguten kontrol sistemak eta prozedurak ondorengo fase baterako utziko dira.



1.3 Ikuskaritzaren faseak

Urretxuko argiztapen publikoaren energia-ikuskaritzaren lan osoaren faseak hauek dira:

- 1. FASEA: Beharrezko datu teknikoek biltzea.

Lanak, urretxuko kanpoko argiztapen publikoaren instalazioekin erlazionatuta dauden kontsumo foku energetikoen identifikazio eta ezagutzarekin hasi ziren.

Ikuskaritzaren garapena planifikatzeko eta datu teknikoek biltzea arintzeko, argiztapen publikoaren udal arduradunaren edo ordezkorek laguntza ezinbestekoa izan da.

- 2. FASEA: Kaleko datu biltzea.

Ondoren, lehenengo fasean lortutako datuak osatzeko eta egiaztatzeko asmoz, kanpoko azterketa burutu zen. Hauetan argiztapen publikoari gaueko nahiz eguneko ikuskapenak egin zitzaizkion.

Fase honetan argiztapen publikoaren eremu bat osatzen duten elementuak identifikatu ziren. Beste batzuen artean hauek bereizten dira:

- Kontratazio mota eta ezaugarriak, energia kontsumoak eta gastu ekonomikoak.
- Argiztapen motak: bidekoa, apaingarri, etab.
- Lanpara motak, luminariak, balastoak, etab.
- Argiztapen ekipoa konektatzeko eta deskonektatzeko kontrol motak.
- Argiztapena murriztuz energia aurrezteko sistemak (linea buruan egonkortzaile-erreduktoreak, maila biko balastoak, etab.).
- Kaleko argi guztien inbentarioa.

Honekin guztiarekin, ondorengo datuak lortzen dira:

- Argiztapen koadroen inbentario.
- Parametro elektrikoek monitorizazioa eta erregistroa (tentsioak, intentsitateak, potentzia faktoreak, potentzia aktiboa, erreaktiboa eta itxurazkoa, karga bihurtzea, kontsumo energetikoa, etab.)
- Koadroaren lurrarekiko erresistentzia neurria.
- Ekipo eta lineen kontserbazio-egoera.
- Argi mailak eta argiztapen ezaugarriak.
- Argiztapen funtzionamendu egokiaren ziurtapena.

- 3. FASEA: Egungo egoeraren analisia, ebaluazioa eta instalazioek hobekuntzarako proposamenak egitea.

Bildutako datuekin instalazioetan burutu beharrezko aldaketa eta hobekuntza proposamenak eratzen dira. Beste batzuen artean helburu hauek bilatu dira:

- Argiztapen publikoaren gastu murrizketa.
- Kontsumo energetikoa eta argi kutsadura murriztea; lanporetan, ekipoa osagarrietan eta kale-argietan zuzenketak eginez, pizteko eta amatatzeko sistemak hobetzea; argi-fluxuaren erregulazio sistemak instalatzea, etab.
- Mantentze eta kontrol jarduerak hobetu. Hauek deskripzio teknikoekin eta azterketa ekonomikoekin batera aurkeztuko dira: beharrezko inbertsioa eta aurrezpen energetikoari dagokion aurrezpen ekonomikoaren arabera inbertsioa eskuratzeko aldia.

- 4. FASEA: Ikuskaritzaren azkenengo azterketa informea.

Fase honetan, ezer baino lehen, aztertutako argiztapen publiko bakoitzeko informea bat egin zen, zeinetan hurrengo informazioa dute:

- Consultoria Luminicak teknikariek bildutako informazioaren arabera, kanpoko argiztapen publikoaren eremu bakoitzeko deskripzio teknikoa.
- Eremu bakoitzari lotutako oraineko energia kontsumo eta gastuak.
- Consultoria Luminicak egindako azterketen emaitzen ondorioz, gastu energetikoak eta ekonomikoak murrizteko gomendio teknikoak eta kudeaketa.
- Proposatutako ekintzak aurrera eramanez, eremu bakoitzeko kontsumo eta gastuak.

Bigarrenik, ikuskaritzaren ondorioak bildu diren azken azterketa burutu da. Hemen, aztertutako argiztapen publikoaren ikuspen orokorra ematen da.

Consultoria Luminicak Argiztatze Publikoaren Energia-Ikuskaritzak "CEI-IDEA kanpoko Argiztatze Publikorako Instalazioentzako Energia-Ikuskaritzaren Protokoloan" ohinarrituta eta 1890/2008 Errege Lege Dekretuko "Kanpoko Argiztatzerako Instalazioen Energeia Eraginkortasunaren Arautegiaren" arabera egiten ditu.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

1.4 Energia-Zerbitzuen Enpresak. EZE-ak

Energia-Zerbitzuen Enpresak / Empresa de Servicios Energéticos” “EZE/ESE”-ak, bezeroen jabetza pribatuan energia zerbitzuak eskeini eta hauen ordaina energia- aurrezpenetatik hartzen duten erakundeak dira.

Aurrezpen hauek energia berriztagarriak erabiliz edo energia eraginkortasuna hobetuz lortuko dira.

Energiaren erabilera eraginkorragoa lortzeko eta instalazioen kostuak murrizteko helburu bakarria duten eta edozein energia-zerbitzu eskaini dezaketen enpresa hauek oso jarduera-eremu zabala dute.

EZEek proiektuak diseinatu, ordaindu, instalatu, martxan jarri eta kontrolatu ditzakete, horretarako, ehin batean, zein osorik, dakarten arrizkua beren gain hartuta.

Negozio mota hau 70. hamarkadan garatu zen, Ameriketako Estatu Batuetan izan ziren energia-kostuen gorakadari erantzun nahian. Hasieran, eskeintzen ziren kontsumituriko energia aurrezpenak egiazkoak zirela sinisten ez zutelako, energia kontsumitzaile nagusienek ez zuten zerbitua ontzat hartu.

Mesfidantza honexegatik, energia-aurrezpenak aurreikusitakoak zirela bermatzeko eta emandako zerbitzuak aurrezpen hauekin finantziatuz, sortu eta garatu ziren “Energia-Zerbitzuen Enpresak/ Empresa de Servicios Energéticos” “EZE/ESE”-ak. 90. hamarkadan argiztapen, aire girotu, etxegintza bioklimatiko, eta abarren energia-eraginkortasuna lortzeko teknologia berrien garapenarekin zerbitzu mota honek garrantzia handia izan zuen Ameriketako Estatu Batuetan. Honela, EZE-ek negozio eremu garrantzitsua hartu zuten eta estatu honetan, instalazio pribatu zein publikoetan, hainbat proiektu garatu zituzten.

Gaur egun, EZE-ak eta euren negozio eredua nazioartean oso zabaldurik daude eta Espainiar estatuan ere garatzen hasiak dira.

Alemaniak, Kanadak edo AEBek aipaturiko zerbitzuetan duten esperientzia zabala dela eta hasiak dira negozio eredu hau beste herrialde batzuetara esportatzen. 2008. urtean Ameriketako Estatu Batuetako Energia-Zerbitzuen Enpresek 6.000 milioi dolarreko diru mugimendua izan zuten eta 60.000 lanpostu sortu zituzten. Alemanian, antzerara, zerbitzu publikoak bakarrik kontuan izanda, Energia-Zerbitzuen Enpresek 2.000 milioi eurotako merkatu-eremua dute.

Espainiar estatuan, Industria, Turismo eta Komertzio Ministerioak EZE-en bitartez zerbitzu energetikoen merkatua sustatu nahi du. Merkatu eremu hau, era berean, energia- eraginkortasuna eta aurrezteak lortzeko estatuak eta europar batasunak dituzten helburuak lortzeko aukera garrantzitsua da.

2008. urte amaieran Europar parlamentuak “20-20-20” helburu hirukoitza onartu zuen. 2020. urterako, 1990.aren alderatuta ondorengo helburuak ditu: Berotegi efektua sortzen duten gas-isurketak %20 gutxitzea, Europako lehen mailako energiaren kontsumoa %20 gutxitzea eta energia berriztagarriak kontsumoaren %20a igotzea.

Europar Batasunaren “20-20-20” helburuetan oinarrituta Espainiar estatuak 2020. urterako ondoko helburuak ditu: Energia berriztagarriak guztira kontsumituriko energiaren %20a izatea eta era berean, garraioari dagokion kontsumoaren %10a izatea; “sectores difusos” deritzenetan [Espainiar estatuan berotegi efektua eragiten duten gas-isurketak arautzen dituen martxoaren 9ko 1/2005 legetik kanpo dauden, eta hala eta guzti ere, kutsatzaileak diren jarduerak dira. “Plan Nacional de Asignación 2008 -2012”-aren arabera jarduera hauek ondokoak dira: garraioa, etxebizitza, nekazaritza, ondakinak eta fluordun gasak] berotegi efektua eragiten duten gasak %10 gutxitzea; eta, 2020. urterako aurreikusitako energia kontsumoa %20 txikiago izatea.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

1.4 Energia-Zerbitzuen Enpresak. EZE-ak

Laburbilduz “20-20-20”-aren helburua berotegi efektua sortzen duten gasak gutxitzea da eta berau lortzeko ildo nagusi bi jarraitzea ditu: energia-eraginkortasuna eta aurrezteak, eta energia berriztagarriak. Helburuok lortzeko egin beharreko zuzenbideak IDEA-ek garaturiko Industria, Turismo eta Komertzio Ministerioaren “Energia Aurrezteko eta Eraginkorragoa egiteko” eta “Energia berriztagarrien” planetan daude. “Energia Aurrezteko eta Eraginkorragoa egiteko” planaren neurri lagungarrietariko bat Energia-Zerbitzuen Enpresak garatzen laguntzea da, horretarako, ziurtasun juridikoa bermatu, finantzaketa erraztu eta zerbitzuon kontratazio publikoa bultzatuko da. Luzarora begira baliteke, EZE-ek inbertituriko dirua berrezkuratze epeak laburtzeko eta hauek euren zerbitzuak eskeintzeko, dirulaguntzak behar izatea. Dirulaguntzei esker EZE-ak kontratatzea erakargarriagoa litzateke.

EZE-ek eskainitako zerbitzuen ezarpenak autonomien, estatuaren eta Europar Batasunaren energia berriztagarriak sustatzeko eta energia aurrezteko helburuak betetzen laguntzen du. Zerbitzuoi esker instalazio handien egoera hobetu eta %25-%40 bitarteko aurrezpenak lortzen dira, guzti hau ingurumen-kalitatea gutxitu gabe.

“Llave en mano” erako proiektuekin duten antzeragatik eta bezeroak finantzaketan dituen erraztasunengatik EZE-en zerbitzuek merkaturatzeko aukera handiak dituzte. Banakako zerbitzu zehatzak (diseinua, proiektu baten gauzatzea eta mantentze-lanak...) eskaintzen dituzten enpresen aldean, EZE-ek eskeinitakoek abantaila eta hobekuntza gehiago dituzte energia aurrezteko zerbitzu guztiak batera daudelako.

Zerbitzu guztiak batzeaz enpresaren energia-beharrizanak kanpotik kontrolatu daitezke, arreta osoa instalazioaren eginkisun nagusian jarri eta energia kontsumo eta funtzionamendu eraginkorragoak lortzen dira.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

1.5 Kanpoko argiztapen publikoaren energia-ikuskaritza egiterakoan kontuan izandako arauak

- Azaroak 4ko "1890/2008" Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez "kanpoko argiztapeneko instalazioei buruzko Eraginkortasun Erregelamendua" eta EA-01-tik EA-07-rartereko jarraibide teknikoak onartzen direna. Argitalpena: "BOE 19/11/2008" Industria, Turismo eta Komertzio Ministerioa.
- 1984ko Ekanak 4ko Agindua, ERAIKUNTZA. "NTE-IER" Eraikuntzako teknologia arauak. "Elektrizitate instalazioak. Kanpoko sarea". Argitalpena: "BOE 19/06/1984". Herri Lan eta Hirigintza Ministerioa.
- Abenduak 18ko "2642/1985" Errege Lege Dekretua, INDUSTRIA OROKORREAN. Argi-euskarrien (trafiko seinaleen eta kanpoko argiztapenerako paldoak) espezifikazio teknikoak eta berauen homologazioa. Argitalpena: "BOE 24/01/1986". Industria eta Energia Ministerioa.
- 1989ko Maiatzak 16ko Agindua, INDUSTRIA OROKORREAN. Abenduak 18ko "2642/1985" Errege Lege Dekretua, non, argi-euskarrien (trafiko seinaleen eta kanpoko argiztapenerako paldoak) espezifikazio teknikoak eta berauen homologazio aldatzen ditu. Argitalpena: "BOE 15/07/1989". Industria eta Energia Ministerioa.
- Apirilak 14ko "401/1989" Errege Lege Dekretua, SIDEROMETALURGIA. Abenduak 18ko "2642/1985" Errege Lege Dekretu, non, kale-argien (trafiko seinaleen eta kanpoko argiztapenerako paldoak) espezifikazio teknikoak aldatzen ditu. Argitalpena: "BOE 26/04/1989". Industria eta Energia Ministerioa.
- 1989ko Ekainak 12ko Agindua, SIDEROMETALURGIA. Argi-euskarriak (trafiko seinaleen eta kanpoko argiztapenerako paldoak) homologatzearen ordezkotza arauen adostasuna duen ziurtagiria ezartzen du. Argitalpena: "BOE 07/07/1989". Industria eta Energia Ministerioa.
- Abuztuak 2ko "842/2002" Errege Lege Dekretua, non Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan zehazten den. Argitalpena: "BOE 18/09/2002". Zientzia eta Teknologia Ministerioa.
- Abenduak 12ko "1955/2000" Errege Lege Dekretua, ELEKTRAINDARRA. Elektra indarraren garraioa, banaketa, komertzializazioa, hornidura eta instalazio baimenen prozedura erregulatzen dituen. Argitalpena: "BOE 27/12/2000". Ekonomia Ministerioa.

NAZIOARTEKO AHOLKUAK

- Argiterirako nazioarteko hiztegia. "CIE S 017/E: 2011" argitalpena.
- Argiztapen-parametroek ikusmen-prestazioetan nola eragiten duten azaltzeko eredu analitikoa. "CIE 19.21/22: 1981" argitalpena.
- Autobideak argiztatzeko gomendioak. "CIE 23: 1973" argitalpena.
- Errepide argiztapenaren luminantzia eta iluminantzia nola kalkulatu eta neurtu. "CIE 30.2: 1982." argitalpena.
- Errepide argiteriaren instalazioetako uniformetasuna eta eragiten duten itsualdia. "CIE 31: 1936" argitalpena.
- Argiztapen publikoko gune bereziak. "CIE 32/AB: 1977" argitalpena. BULEGO TEKNIKOA. ENERGA AHOLKULARITZA
- Argiztapen publikoko instalazioen balio-galera eta matentze lanak. "CIE 33: 1977" argitalpena.
- Errepideak argiztatzeko kale-argiak: datu fotometrikoak, sailkapena eta prestazioak. "CIE 34: 1977" argitalpena.
- Errepideen argiztapena bustirik daudenean. "CIE 47: 1979" argitalpena.
- Islapena: definizioa eta neurketak. "CIE 54: 1982" argitalpena.
- Tunel-sarreretako argiteria: luminantzia mugak zehazteko oinarriak. "CIE 61: 1984" argitalpena.
- Errepide-zoladura eta argiteria. "CIE 66: 1984" argitalpena.
- Argi-fluxuaren neurketa. "CIE 84: 1989" argitalpena.
- Tunelak eta lurpeko pasabideak argiztatzeko gida. "CIE 88: 1990" argitalpena.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

1.5 Kanpoko argiztapen publikoaren energia-ikuskaritza egiterakoan kontuan izandako arauak

- Tunel-sarreretako argiteria: luminantzia mugak zehazteko oinarriak. "CIE 61: 1984" argitalpena.
- Errepide-zoladura eta argiteria. "CIE 66: 1984" argitalpena.
- Argi fluxuaren neurketa. "CIE 84: 1989" argitalpena.
- Tunelak eta lurpeko pasabideak argiztatzeko gida. "CIE 88: 1990" argitalpena.
- Istripuak ekideteke errepiden argiztapena. "CIE 93: 1992" argitalpena.
- Proiektoreekin argiztatzeko gida. "CIE 94: 1993" argitalpena.
- Kontrastea eta Ikuspena. "CIE 95: 1992" argitalpena.
- Gaeuz gidatzerakoan begien funtzionamendu oinarriak. "CIE 100: 1992" argitalpena.
- Oinezko eta trafiko motorduneko errepideak argiztatzeko gomendioak. "CIE 115: 1995" argitalpena.
- Kale-argien fotometria eta gonio fotometria. "CIE 121: 1996" argitalpena.
- Zeruko gehiegizko argitasuna gutxitzeko gida. "CIE 126: 1997" argitalpena.
- Kanpoko lan-eremuak argiztatzeko gida. "CIE 129: 1998" argitalpena.
- Errepideak argiztatzeko diseinu-metodoak. "CIE 132: 1999" argitalpena.
- Hiriguneak argiztatzeko gida. "CIE 136: 2000" argitalpena.
- Errepideen argiztapena kalkulatzeko metodoak. "CIE 140: 2000" argitalpena.
- Garraio zerbitzuetan kolore-ikusmen egokirako bete beharreko gutxieneko baldintzen gomendioak. "CIE 143: 2001" argitalpena.
- Galtzada-gainazal eta trafiko-seinaleen ezaugarri islatzaileak. "CIE 144: 2001." argitalpena.
- Zerua babesteko araudia. Kanpoko argiztapenentzako irizpideak. (Kanariar Uharteetako Astrofisika Erakundea).
- "CEI" Txosten Teknikoa. "Gaeuko argi disdira murrizteko gida" (1999ko martxoa).
- Errepideak eta tunelak argiztatzeko 1999ko Sustapen Ministerioaren gomendioak.
- "CELMA" gomendioak.
- Argiztapen publikorako, "AFE" Argiztapenerako Frantses Elkartearen gomendioak.
- Gune irekiak, zein kanpoko instalazioak argiztatzeko gomendioen laburpena. (Zeruko argi-mailen kalitatea babesteko Bulego Teknikoa: 2001ko ekaineko bertsioa).
- "CIE Division 5 Exterior and Other Lighting Applications."
- "TC5.12-Obstrusive Light: Guide on the limitation of the effects of obstrusive light from outdoor lighting installations (Final Draft –January 2001)".
- 2001eko martxoko (IDAE-CEI) Argiztapen Publikoan Energia-Eraginkortasuna lortzeko.
- 2001ko ekainak 21eko "CEN/TC 169"-ren txosten-proiektua. (Normalizaziorako Europako Batzordearen).
- Zeru-kalitatea babesteko arautegia (Kanariar Uharteetako Astrofisika Erakundea).

Zerrenda honetan agertu ez arren, jardueren arabera, bete beharreko beste arau guztiak.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2. ARGIZTAPEN INSTALAZIOEN GAUR EGUNGO EGOERA

Urretxuko udalak, Euskal autonomi erkidegoan Gipuzkoako probintzian kokatua, aztergai diren 229 eremu ditu (kaleak, plazak...). Argiztapen sistema publikoa 30 koadrok kontrolatua (ikus erantzitako plano) eta mota ezberdineko 1804 kale-argiz osaturik dago.

Garatutako argiztapen publikoaren ikuskaritza-energetikoak, gaur egungo argiztapena eraginkorra ez dela eta txosten honetan adierazitako neurriak ezarriz % 45 - % 55 tarteko aurrezteak lor daitezkeela baieztatzen du.

1.1, puntuaz aldatu den bezala, argiztapen publikoaren eraginkortasuna 6 elementu eta ekintzek zehazten dute. Ondoren, Urretxuko argiztapen publikoa osatzen duten elementuen egoera eta hauen egokitzapen maila azaltzen da:

2.1 Kale-argia/luminaria:


Kale-argiak, lanparen euskarri eta sare elektrikora konektatzen dituzten aparatuak dira. Hau guztia eraginkortasun maila egokia lortzeko nahikoa ez denez, beste batzuen artean, ezaugarri optiko, mekaniko eta elektrikoak betetzea beharrezkoa da.

Optikari dagokionez, kale-argiak lanparak igortzen duen argia kontrolatzeko eta barreiatzeko eginkizuna du. Beraz, oso garrantzitsuak dira: bere sistema optikoa diseinatzerakoan duen forma eta argiaren banaketa; luminariak eta lanparak osotara duten etekina eta jendeari sor liezaiokeen itsualdia zaintzea. Kale-argiak mantentze eta instalazio errazekoak izan behar dira. Horretarako, kale-argiaren eraikuntzan erabilitako materialak lan baldintzak jasateko eta lanpararen funtzionamendu tenperatura limiteen barruan mantentzeko egokiak izan behar dira. Hau guztia, kostu eta itxura kontuak ahaztu barik.


Argia behar den lekuan emateko arduraduna izanik, sisteman eraginkortasuna sortzen du. Bere izaera etekina, argi banaketa, estankotasun maila edo dimentsioa faktore kontrolagarrien menpe dago. Goiko hemisferiora argia igortzeko premisa bete behar du (GAFinst /FHSinst), eta ez ditu gairitu behar ingurumen jakin bateko zonaldeari dagozkion onartutako baloreak (%1a eta %25aren artekoak).

Urretxun dagoen kale-argi kopurua 1804 unitatekoa da, eta hauen banaketa honako hau da:


- Funtzionalak: 242 unitate. (%13,41)
- Biribilak: 307 unitate. (%17,02)
- Klasikoak: 133 unitate. (%7,37)
- Apaingarriak: 693 unitate. (%38,42)
- Proiektoreak: 420 unitate. (%23,28)
- Erregletak: 9 uds. (%0,50)



Argien eraginkortasun maila



Argi-paldoen gaur egungo egoera



Datuak bildu eta aztertu ostean Urretxuko kale-argiak eraginkortasun maila handia, ertaina, baxua eta eskasaren artean sailka ditzakegu.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.2 Argi iturriak

Argi multzoaren bihotza da. Edozein argiztapen sistema publikotan, lanparek sortzen den kontsumo energetikoaren % 85a biltzen dutenez, ondo aukeratzea funtsezkoa da.

Gaur egun presio handiko sodio lurrunezko, fluoreszentsia trinkodun eta halogenuro-metalikozko (hiribarru eta leku apaingarrietan) argi iturri eraginkorren artean aukeratzea beharrezkoa da. Merkurio lurrunezko lanparak baztertu behar dira, kutsatzaileak direlako eta eraginkortasun maila txikiagoa dutelako.

LED-a, etorkizunera begira, aukera handiko beste argi iturri bat da. Izan duen garapenak eta energia aurrezteko duen helburuak, bezeroen nahiak betetzen ez dituzten kale-argiak merkaturatzeko bidea eman du. Honek, bezeroek espero dituzten emaitzak betetzen ez dituzten produktuak antzemateko ezinbestekoak diren parametro batzuk kontuan hartzea behartzen gaitu.

LED TEKNOLOGIA

Kale argiztapenerako potentzia handiko LED (Light Emitting Diode) teknologiak izandako garapenak, berau darabilten eta ohiko kale-argiak ordezkatzeko produktuak sortu ditu.

Berrikuntzok, iraunkortasunaren arabera mantentze lanak gutxitzen dituztela eta energia eraginkortasun hobea duten argiztapen-instalazioak direla baieztatu ezker, izugarriko onurak lituzkete.

Argi izan behar da LED (diodo argi igorlea bera) fabrikatzaileek ematen dituzten datuek ez dutela LED-ak kale-argian izango duen funtzionamendua kontuan hartzen. LED-en ezaugarriak, argia igortzen duten diodo berdinak erabil ditzazketen arren, kale-argi baten edo bestearen (modelo ezberdinetakoak) funtzionamendu diseinuaren arabera aldatzen dira. Honen arrasoia zera da. Fabrikatzaileek emandako datuak LED-en funtzionamendu baldintza nominaletarako dituztenak dira, eta ez LED-ok kale-argi jakin bakoitzean jasaten dituzten funtzionamendu baldintza errealean arabera. Produktu ezberdinak era egokian alderatzeko, kale-argien fabrikatzaileek argi, zehatz eta erabilera errealei ezarrita azaldu behar dituzte fabrikatzen dutenaren parametro tekniko eta ezaugarri normalizatuak. Gaur egun, ordea, Kanpoko argi Instalazioen Energia-Eraginkorrenentzako Arautegian ez dago LED-ak erabiltzeko aipamenik.

- LED-a

LED-a (Light Emitting Diode) material erdieroaledun geruza ezberdinez eraturiko diodoa da eta uhin zabalera ezberdinen arabera (kolorearen arabera) argia igortzen du. Diodoetan korronea norantza bakarrean igarotzen da. Teknologiaren arabera, diodoa eta bere zirkuito elektrikoa "epoxi" erretxinatan edo material zeramikotan kapsulatzen da.

- LED Modulua

Modulu hau LED-ez gain, hauekin batera dauden elementu multzoak osatzen dute: zirkuitu imprimatuak, bero-disipatzaileak, elikatze-iturriak, sistema optikoak... Elementu hauek fabrikatzaileek adierazitako LED-en funtzionamendu ezaugarriak aldatzen dituztenez, beharrezkoak dira moduluari berari froga zehatzak egitea egiazko funtzionamendua zein den jakiteko.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.2 Argi iturriak

- Retrofit LED sistema

LED teknologian oinarritzen den beste argi-iturri eta ekipo laguntzaileak ordezkatzeko elementua. Aurretiaz jarrita dagoen kale-argiaren ordezkari gisa Retrofit LED sistema jartzeko ez du funtzionamendu fotometrikoaren, ez termikokoaren, ez mekanikoaren justifikaziorik behar.

- LED kale-argia

Argia igortzeko LED teknologia darabilen kale-argia. Teknologia hau darabilten mota bakoitzeko kale-argiek errendimendu, balio-bizitza... funtzionamendu ezaugarri berdinak dituzte.

- Elikadurarako eta kontrol elektronikorako gailua (DRIVER-a)

Kale-argira heltzen den energia elektrikoa LED sistemak behar bezala funtzionatzeko moldatzen duen elementu laguntzailea.

EZARRITAKO LEGEAK

Productu guzti hauek "CE" marka izan behar dute. Hau da, "CE" marka duten produktu zein elementuek, aurretiaz aipatutako legeak eta gerora ezarri dakizkiokenak bete behar dituzte.

Bere ekipo eta guzti muntaturik dagoen deskarga lanparadun kale-argiak LED teknologiaz moldatu edo aldatu nahi direnean (lanparak bakarrik aldatuz, sistema optiko berria, zein "Retrofit" LED sistema jarritz) eta lanok teknikoak direnean (deskonexio eta konexio elektrikoak), aurretiaz zegoen kale-argiaren segurtasun neurriak eta ezaugarriak kalteku daitezke. Horrez gain, segurtasunean, funtzionamenduan, konpatibilitate elektromagnetikoan, lege-markarekin, ingurumenean duen eraginean, ezaugarri fotometrikoetan, bero-disipazioan, fluxuan, kale-argiaren eraginkortasunean, kontsumoan, balio-bizitzan eta garantían arazoak sor litezke.

Kale-argiari moldaketak edo aldaketak egiterakoan zituen fabrikazio ezaugarriak galdu eta kale-argi mota berri bezala hartzen da. Moldaketok egin dituen teknikaria kale-argi berri horren funtzionamenduren osoko erantzulea izango da. Bere ezaugarriek legea eta segurtasun neurri elektriko eta mekanikoak bete beharko dituzte.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu




2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.2 Argi iturriak

Ikuskaritza honetan guztira 1.804 lanpara aztertu dira. Lanpara mota kontuan hartuta, banaketa hauxe da:

Lanpara mota	Potentzia unitateko (W)	Unitateak	%	Potentzia (W)	%
Presio handiko sodio lurruna	70	110	%6,10	7.700	%3,13
Presio handiko sodio lurruna	100	356	%19,73	35.600	%14,47
Presio handiko sodio lurruna	150	577	%31,98	86.550	%35,18
Presio handiko sodio lurruna	250	170	%9,42	42.500	%17,27
Presio handiko sodio lurruna	400	10	%0,55	4.000	%1,63
Halogenuro metalikoak	70	62	%3,44	4.340	%1,76
Halogenuro metalikoak	150	306	%16,96	45.900	%18,66
Halogenuro metalikoak	250	21	%1,16	5.250	%2,13
Halogenuro metalikoak	400	21	%1,16	8.400	%3,41
Led-ak	5	8	%0,44	40	%0,02
Led-ak	72	40	%2,22	2.880	%1,17
Goritasun lanparak	23	3	%0,17	69	%0,03
Kontsumo txikiko besteak	20	10	%0,55	200	%0,08
Kontsumo txikiko besteak	23	87	%4,82	2.001	%0,81
Kontsumo txikiko besteak	26	23	%1,27	598	%0,24
Guztira		1.804	%100,00	246.028	%100,00%

Argi iturriak



www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.3 Ekipo osagarriak

Sistemaren motorra da eta lanpak piztea ahalbidetzen dute. Elektromagnetikoak, elektronikoak, maila bikoak edo hirukoak izan daitezke. Energia aktiboa eta errektiboaren kontsumoa murriztean luminariaren funtzionamendua hobetu dezake, lanparak baldintza eraginkorragoetan egingo du lan eta erabilera iraupena luzatzen du.

Ekipo osagarriak, errektantziak edo balastoak, deskarga lanparekin batera erabiltzeko eta lanparok funtzionamendu egokia izan dezaten, jasan beharreko korronea eskaturiko balioetara mugatzeko osagaiak dira.

Ekipo osagarriaren kontsumoa lanpararen kontsumoarekin konparatuz %5 - %30a da.

- Balasto elektromagnetikoa: deskarga lanparekin erabilitako balastoa, kiribildutako kobre hariz osaturik batez ere, burdinazko edo altzairuzko nukleodun transformagailuen antzekoa.
- Balasto elektronikoak: Balasto elektronikoek osagai elektronikoak erabiltzen dituzte. Abantailak: lanpararen eraginkortasun handiagoa, balasto galera txikiagoak eta balasto elektromagnetikoekin konparatuz balasto txikiagoak eta arinagoak.



2.4 Argizatze-koadroak: Kudeaketa eta gestio sistemak

Argizatze-koadroen pizte eta itzaltzea kontrolatzeko elementu erabilienak zelula fotoelektrikoak, erloju analogikoak eta erloju astronomikoak dira.

Erloju astronomikoek ez dute sarri doitzeko beharrik, beren kokapen geografikoaren arabera pizte eta itzaltze taulak dituzte. Gainera, erredukzioak egiteko eta argiak aldizka pizteko aukerak dituzte.

Zelula fotoelektrikoek eragozpen nagusi bi dituzte. Bata, lohitzen direnean pizteko agindua behar dena baino lehenago ematen dutela da. Bestea, zero lainotudun egunetan argiak denbora tarte laburrean piztu eta itzali daitezke. Guzti honengatik, Zelula fotoelektrikoek ez dira fidagarriak.

Beste aldetik, kudeaketa zentralizatutako sistemek, leku konkretu batetik udalerriko argiztapen publikoaren instalazio guztia kudeatzea eta itzalita edo txarto funtzionatzen duten lanpara kopurua jakitea ahalbidetzen du. Kontrol honek mantentze lanak murrizteko aukera dakar, gaueko txandak kentzean eta sistemen akatsak hein handi baten gutxitzearekin biztanleek jasotzen duten argiztapen kalitatea handitzean.

Gaur egun, Urretxuko koadroetan zentralizatutako 19 gestio sistema daude.

Argizatze-koadro bakoitzaren pizte eta itzaltze kontrola ondokoa da:

KOADROA IDL	ORAINGO PIZTE SISTEMA	ERREGULAZIOA
255.1	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.2	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.3	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.4	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.5	ERLOJU ASTRONOMIKOA	BAT ERE EZ
255.6	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.7	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.8	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.9	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.10	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.11	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.13	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.14	ERLOJU ASTRONOMIKOA + ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.15	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.16	ERLOJU ASTRONOMIKOA	EST + ERRED
255.17	ERLOJU ASTRONOMIKOA	EST + ERRED
255.18	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.19	ERLOJU ASTRONOMIKOA + ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.20	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.21	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED

www.consultoria-luminica.com



Urretxu




2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.4 Argizatze-koadroak: Kudeaketa eta gestio sistemak

KOADROA IDL	ORAINGO PIZTE SISTEMA	ERREGULAZIOA
255.22	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.23	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.24	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.25	ERLOJU ASTRONOMIKOA	BAT ERE EZ
255.26	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.27	ERLOJU ASTRONOMIKOA + ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.28	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.29	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	EST + ERRED
255.30	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ
255.31	ZELULA FOTOELEKTRIKOA	BAT ERE EZ


Urretxuko argizatzen publikoaren pizte sistemek kontrolaturiko potentzien araberako grafikoa:

Pizte sistemen araberako potentziak



Argizatze-koadro bakoitzeko argi-puntuen araberako grafikoa:

Argi-puntuen araberako koadroen dentsitatea



www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.5 Argi-mailak gutxitzea

Argi fluxua gutxitzen duten sistemen bitartez, herriko kaleetan trafiko zirkulazioa txikia denean, energia kontsumoa gutxitu daiteke. Mota bi gailentzen dira: punturik puntuko erredukzioa eta argizatze koadroan bertan egiten den erregulazioa. Kasu bietan kontsumituriko potentzia %35 eta %40 bitartean gutxitu daiteke.

Argi fluxua erregulatzeko sistemek lanparek igorritako argi kantitatea kontrolatzen dute. Honi esker, argitasuna momentuko beharrezko araberakoa izatea lortzen da. Erabilitako teknologiaren araberako sistemak hauexek dira:


-Punturik puntuko erregulazioa: Lanparako bat jartzen da. Batzuek, argi fluxua gutxitzen dute. Fluxua handitu ala gutxitzeko agindua argizatze-koadroan kokaturiko erloju batek ematen du eta agindua kable bidez heltzen zaio kale-argiari. Beste batzuk, ez dute kanpoko agindurik behar; beren barnean denboragilua dute.

-Erregulazioa argizatze-koadroan: Argizatze-koadroan kokatzen da, energia elektrikoa hornitzen duen lotura-hodiaren ondoan. Funtzionamendu agindua erloju batek kontrolatzen du eta argi fluxua lanparak elikatzen dituen tentsioa handituz edo txikituz kontrolatzen du. Honez gain, lanparetara eta beste gailuetara heltzen den tentsioa egonkortzeko eginkisuna dute; gain-tentsioen kontrako babesa dira; eta, ekipo laguntzaileen eta lanparen balio-bizitza luzatzen dute. Potentzia handiko instalazioetan erabiltzea gomendatzen da.

-Ekipo elektronikoak: ekipo hauek hasierako erreaktantzia balioak birprogramatu, erloju astronomikoaren pizte eta itzaltze orduen araberako erredukzioa izan eta funtzionamendu normaleko ordu kopurua kalkulatu ditzakete. Erreaktantzia konpentsatzeko eta martxan jartzeko gailuak dituenek, ez du lanparaz konpoko agindu-kablerik behar eta muntaia errazagoa da.

Ondoren, Urretxun erabilitako erredukzio sistema bakoitzari dagozkion kontsumo potentziak adierazten dituen grafika:

Erredukzioaren araberako potentzia



www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.6 Mantentze lanak

OROKORTASUNAK

Denbora joan ahala, kanpoko argi instalazioen ezaugarri eta prestazioak aldatu eta hondatuz doaz. Erabilera eta mantentze lan egokiekin instalazioen kalitate maila mantentzea, funtzionamendu onena eta energia eraginkortasun maila egokienak lortu daitezke.

Denboraren poderioz, kanpoko argi instalazioek ezaugarri fotometriko eta mekaniko txarragoak dituzte. Arrozoi guztien artean garrantzitsuenak hauek dira:

- Lanparen argi fluxua progresiboki txikitzen da.
- Lanpara eta kale-argiaren sistema optikoa zikintzen dira.
- Kale-argiaren sistema optikoa osatzen duten elementu ezberdinak zahar egiten dira (ixte mekanismoa, islagailua...)
- Lanparak ohi baino denbora gutxiago funtzionatzea.
- Kotxe istripuek, jendearen ekintza bandalikoek... eragindako kalteak.

Argi instalazioek kanpoan jartzean eguraldi zakarra jasaten dutelako; bere elementuetara erraz iritsi daitekeelako; garraioaren, pertsonen eta ondasunen segurtasunean duten berebiziko garrantziagatik, mantentze-lan egokiak egitera behartzen gaituzte.

MANTENIMENDU FAKTOREA

(f_m) mantenimendu faktorea, funtzionatzen hasi zeneko (Hasierako batez besteko iluminantzia: "Ehasieran") eta funtzionatzen sasoi bat egon ondorengo (Zerbitzuko batez besteko iluminantzia: "Ezerbitzuan") kanpoko argi instalazioen batez besteko iluminantzien arteko erlazioa da.

$$f_m = E_{\text{zerbitzuan}} / E_{\text{hasieran}} = E / E_h$$

Mantenimendu faktorea unitatea baino txikiagoa da beti ($f_m < 1$), eta batetik gertuen egotea komeni da mantentze lanen maiztasuna ahalik eta txikieta izan dadin.

Mantenimendu faktorea batez ere ondorengo araberakoa izango da:

- a- Lanpara mota, eta denbora joan ahala, argi fluxuaren gutxitzea eta beronen bizi-balioa.
- b- Funtzionamendu denbora osoan kale-argiaren isolamendu maila.
- c- Kale-argia ixteko sistema mota.
- d- Mantentze lanak burutzeko maiztasuna eta berauen kalitatea.
- e- Kale-argia jarrita dagoen lekuko kutsadura maila.

Mantenimendu faktorea bere balio-bizitza, lanparen argi-fluxua eta igortzen duen argia gutxitzea eragiten duten faktoreekiko zuzenki proportzionala da.

Urretxuko gaur egungo argizatze publikoaren mantentze lanek 35.000,00€-tako kostua dute. (2011. urteari dagozkion datuak)

www.consultoria-luminica.com



Urretxu




2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.7 Argiztapen mailak

Argiztapen maila argiztatu nahi den objektuaren elementurik garrantzitsuena da, kasu honetan herri bideak, eta honela definitzen da “argizatutako objektuaren azalera unitate bati eragiten dion argi-fluxua”. Neurri unitatea lux (lx) da.

Jarduera bakoitzeko edo bide sailkapen bakoitzeko aurretiaz jarritako argi maila egokienak zehazten dituzten arauak daude. Udalerriko kaleetan jasotako argi mailak ‘argiztapen publikoaren energia eraginkortasunerako arautegiak’ ezarritakoak baino handiagoak badira, kontsumituriko energia beharrezkoa baino handiagoa da.



2.7.1 Bideen sailkapena eta argiztapen moten aukeraketa

Atal honetan, Urretxuko bideak zirkulazio abiaduraren arabera sailkatuko ditugu. Horretarako, adierazitako eguneko trafikoaren batz besteko intentsitatearen (IMD) eta bideen arabera sailkatuko ditugu. Sailkapen honekin hauxe ikus dezakegu:

- Urretxuko 6 eremuk 7.000 ibilgailutakoa baino batz besteko trafiko dentsitate txikiagoa dute.
- Urretxuko 108 eremuk trafiko dentsitate normala dute.
- Urretxuko 115 eremuk oinezkoen dentsitate normala dute.

Ondoren, bide mota ezberdinak aztertu ostean, bakoitza argiztapen motaren arabera sailkatzen da:

- A motako bideentzako argiztapen motak (abiadura handikoak):
ME4a sailkapenean gune bi
- B motako bideentzako argiztapen motak (abiadura moderatuak):
ME4b sailkapenean 4 gune
- D motatako bideentzako argiztapen motak (abiadura baxukoak):
S3 sailkapenean 108 gune
- E motatako bideentzako argiztapen motak (oinetzkoen bideak):
S2 sailkapenean 115 gune

Urretxun dauden bideentzako argiztapen mailak zehazten dira:

	Luminantzia ertaina Lm (cd/m ²)	Uniformetasun Globala Uo	Iluminantzia ertaina Em (lux)	Iluminantzia minimoa Emin (lux)	Batez besteko Uniformetasuna Um
ME4a	0,75 (11,25 lux)	0,40			
ME4b	0,75 (11,25 lux)	0,40			
S2			10	3	
S3			7,5	1,5	

Taulan, argiztapen instalazioaren mantentze lan onarekin, funtzionamendu egokia lortzeko bete beharko liratekeen balore minimoak agertzen dira.

www.consultoria-luminica.com



Urretxu



2010eko
ingurumen-enpresari
europar saria

2.7.1 Bideen sailkapena eta argiztapen moten aukeraketa

IDL	Eremuaren izena	Eremuaren sailkapena	Argiztapen mota
255.1.1	ETORBIDE BERRIA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.2	ETORBIDE BERRIA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.3	ETORBIDE BERRIA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.4	IPARRAGUIRRE	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3
255.1.5	IPARRAGUIRRE (KALEXKA)	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3
255.1.6	IPARRAGUIRRE	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3
255.1.7	IPARRAGUIRRE PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.8	IPARRAGUIRRE PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.9	IPARRAGUIRRE PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.10	IPARRAGUIRRE PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.11	JAUREGUI	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3
255.1.12	ETORBIDE BERRIA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.13	AREIZAGA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.14	BARRENKALE	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3
255.1.15	BARRENKALE	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.16	IPARRAGUIRRE PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.1.17	IPARRAGUIRRE PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.2.1	BARRENKALE	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3
255.2.2	BARRENKALE	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3
255.2.3	BARRENKALE	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.2.4	BARRENKALE	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.2.5	SAN MARTIN	D-ABIADURA BAXUA 5 KM/H - 30 KM/H ARTEKOA	S3

IDL	Eremuaren izena	Eremuaren sailkapena	Argiztapen mota
255.2.6	SAN MARTIN	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.2.7	SAN MARTIN	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.2.8	SAN MARTIN	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.3.1	GERNIKAKO ARBOLA PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.3.2	GERNIKAKO ARBOLA PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.3.3	GERNIKAKO ARBOLA PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.3.4	GERNIKAKO ARBOLA PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.3.5	GERNIKAKO ARBOLA PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.3.6	GERNIKAKO ARBOLA PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.4.1	ZUBIMUSU PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
255.4.2	ZUBIMUSU PLAZA	E-5 KM/H BAINO GUTXIAGOKO OINEZKOEN BIDEA	S2
